

1. Laborategia

Hurrengo enuntziatuei dagokien Visual Basic kodea idatzi.

1. Erabiltzaileari anai kopurua eta arreba/ahizpa kopurua eskatuko zaizkio. Programak familia ugari bat den ala ez esango dio (suposatuko dugu familia ugari izateko, gutxienez 3 izan behar direla guztira). (*InputBox/MsgBox*)
2. Erabiltzaileari zenbaki oso bat eskatu. $[0,5]$ tartean ez baldin badago, “0-5 tartean egon behar du” pantailaratuko da. Bestela, emandako zenbakiaren karratua pantailaratuko da. (*InputBox/MsgBox*)
3. Bi zenbaki eskatuko dira eta haietako zenbat diren positiboak esango du. (*InputBox/MsgBox*)
4. Erabiltzaileari oinarri hamaseitarrean adierazitako zenbaki bat eskatu (digitu bakarrekoa) eta programak zenbakia oinarri bitarrean pantailaratuko du. (*InputBox/MsgBox*)
5. Erabiltzaileari oinarri hamaseitarrean adierazitako zenbaki bat eskatu (digitu bakarrekoa) eta programak zenbakia oinarri bitarrean pantailaratuko du. Oinarri hamaseitarrean ez balego, errore mezu bat pantailaratuko da (*TextBox/PictureBox*)
6. Erabiltzaileari bi zenbaki eskatu eta gero, zer egitea nahi duen galdetuko zaio 4 aukera emanez (*a*: batuketa, *b*: kenketa, *c*: biderketa edo *d*: zatiketa) eta erabiltzaileak aukeratutako eragiketaren emaitza pantailaratuko zaio. (*TextBox/PictureBox*)